

EKAINA 26 UZTAILA 2

ekainaren 29an ilbete

eguzkia: (ekainaren 26an)

irten: 06.46
sartu: 21.49

mareak: (ekainaren 26an)

gora: 02.07 eta 14.38
behera: 08.21 eta 20.51

LIBURUAK

DABID ZUAZALDE

EXKIXU

Txillardegi



Izenburua: Exkixu.
Egilea: Txillardeggi.
Argitaratzailea: Elkar.
Ezaugarriak: 230 orri, 720 pta.

Durango, liburua frango. Abenduko bezainbatekoa izan ez bada ere, Udaberriko Azoka honetan ere kaleratu da mordoska polita. Denak batera ezin aipatu, eta asterik aste egingo dugu; gurekin etorri nahi baduzu...

Hasteko, aigan eztabaidarik ez baina esames ugari bai sortuko duen liburua: Txillardegiren azkena. Aurreko nobela **Haizeaz bestaldetik** zegoen zapigarren zeru hartatik jeitsi eta hona hemen: lur kiskali honetako errealita-

te gorri eta goria.

Behar bada gutxi aipatuko dutenez, liburuak burura ekarri digun gogoeta bat azaldu nahi genuke: Baroja; orain urte batzuk, asko ziren eredu barojarreko nobela egin behar genukela ziotenak. Hementxe dute bat; protagonistaren ausartak, ekin-tzen bizitasunak eta pertsonaien ugariak adierazten dituztenez. Ez nuke esango Txillardegik nahita egin duenik baina halaxe da. Nire kezka ordea: Baroja proposatzen zutenak gustora gertatuko ote dira lan horrekin?

Honez gero badakizu zertaz den nobela, ezta? Bestela esango dizugu: ETAn sartzen den gazte baten abentura eta kalenturak. Literatur lan gisa, bada, ez da hartarainokoa, eta ez dirudi egilaren asmoa hori zenik ere. Hori bai: gertakariak bizi-bizi igarotzen dira arin kontatuta, eta hori dela-eta benetan bizkor irakurri dugu, ia ziztu bizian.

Txillardeggi idazle ez ezik politikoa ere bada, eta pentsatzekoa da asmo politikoren bat ere baduela liburuak, alegia, burruka armatuaren nolabaiteko epopeia egitea edo. Baliteke. Dena den ez du protagonista «ideal» eta «zoragarria» aukeratu, polemikoa baizik. Burruka mota horren kontra dihardutenek darabilten estereotipoaren ezaugarri guztiak dituen pertsonia, hain zuzen. Eta alde horetatik, beldur gara mesede kaxkarra ez ote zaion egingo goraiatu nahi zenari. Nolanahi ere den, ez da erraz epaitzen.

Bada azken puntu bat, punta atera beharrekoa. Ez al genuen euskara batuaren aitajaunetako bat bada Txillardeggi? Hara bada, nor sartzen digun erdara mordoa eta euskalkietatik ez gutxi. Erdararena, jakina, errealismoaren amoregatik: ezin jarriko du guardiazibil torturatzailerak euskaraz hizketan! Arazo horiek euskal idazleek zehar estiloak erabiliz konpondu izan dute, baina ez da erraza asmatzen, ez horixe; kasu honetan gainera, 'beharrezko' ez zen askotan ere

sartu da erdara, aukera estilistikoa baillitza ia ia. Euskalkiena ere naturaltasunagatik egin da, noski, baina iruditu zaigu egileak ez dituela hizkuntza idatziaren eta mintzatuaren arteko aldeak behar bezala bereizten (ad. *baino* idatziagatik hor irakurle askok *baño* esango du, horrela idatzi beharrik gabe).

Guzti honetan, ohi duenez, Txillardegik buruaz baino bihotzez jokatu du; esanak esan, zinez, irakurtzea merezi duen liburua: «Exkixu».

Xabier Gereño

KIKILI ETA KOKOLO
CHILE-N
Umorezko nobela



Izenburua: Kikili eta Kokolo Chile-n.

Egilea: Xabier Gereño.


Argitaratzailea: Xabier Gereño.

Ohi duen adeitasunez, bere azken nobela (?) igorri digu Gereñok eta pozik asko egingen diogu aipamena. Azken aldiaren gehienbat espiontzaokoa landu baditu ere, ez ditu bestelakoak alde batera utzi, eta hona hemen umorezko bat, orain urte batzuk *Antonello Euskal Herria* harekin hasitako ildoari jarraiki.

Ez da bat ere erraza umorezko liburu bat egitea, eta txisteak pilotzearen poderioz barregarri barik, negargarri suertatzeko arriskua du eremu horretan abiatzen den orok. Aurreko batean kasualitatez topatu genuen liburu batean honako aipua: «*Opera komiko baten azken ordubetea baino tristeagoa*».

Xabier Gereñok ere ezagutzen ditu zailtasunak, baina kementsu eta ausarta izaki ekin egin dio. Emaizta: Kikili eta Kokolo, bata luxe eta ar-

gala, bestea potolo eta txikarra. Herriko festa batzuetako imitatze saioaren ostean elkar ezagutu eta batetik bestera joango dira gero, Txilera eta, abenturetan.



Izenburua: Ahozko bizkaieraz.

Egilea: Iñaki Gaminde.

Argitaratzailea: Bizkaiko A.E.K.

Gaminde langile sutsuaren azken emaitza iritsi zaigu, AEKren eskutik. Ahozko bizkaiera du oraingoan aztergai. Aparki aitortzen zaigu hau ez dela dialektologiako lan 'zientifikoa', irakasleen eskutan jartzen den tresna baino. Halarik ere, lan bikaina dela, ezin ukatu.

AEK-k Bizkaian duen banaketatik abiatzen da, helburu pedagogikoa betetzearen, nahiz eta banaketa hori ez etorri Bonaparterenarekin bat. 8 eskualde guztira: Txorrierri, Uribe Itsaldea, Uribe Butro, Hego Uribe, Arratia, Busturialdea, Durangaldea, Lea-Artibai. Fonetika eta morfo-joskerazko datu eta fenomeno aipagarrienak jorratzen dituen sarreraren ondoren 8 kapitulu, zein bere balararen berri ematen duena. Hauetako bakoitzean, deklinabide, aditz taula eta joskerak kontuak aztertzen dira herri herri, bai eta hiztegia ere.

Dudarik ez, lan itzela egin behar izan duela Gamindek. Orain erabileran behar beste zuku ateratzen zaion ikusi behar. Liburua ez da goitik behera irakurtzekoa, zati jakinen bat kontsultatzekoa; baino, irakasle bakoitzak bere herriko hizkeraren ezaugarrien berri eman diezaien